

## Intxaurreondo

# Txinatik Donostiara Intxaurreondotik barrena

Ostiralean, hilak 19, diapositiba emanaldia eskainiko dute Larrotxene kultur etxeko liburutegian. Karlos Mañero Txinatik Donostiaraino bizikletaz egindako bidaiaz ariko da. Bidaiariak esperientziaren berri eman dio IRUTXULORI.

A.Z.

**D**onejakue bidea bizikletaz egin ostean, bidaia handiago bat egiteko gogo sortu zitzaion Karlos Mañero donostiarrari. "Bidaia beste edozein lekutatik hasi zitekeen", dio Karlosek, "hala ere, azkenean Pekinen ekin nion abenturari". Urriari hasi zuen bidaia eta hamar hilabeteren buruan etxean bueltan zegoen berriro ere. Hamar hilabete horietan hamaika pasadizo

## Kantu eta dantza kalejira

Hilaren 19an Intxaurreondo Zaharreko Bizilagun Elkarteak kantu eta dantza kalejira egingo du auzoan 20.00etatik aurrera. Kalejiraren ostean afaria egingo da Artzak Ortzeok elkartean.

izan ditu: lau aldiz lapurreta egin zioten, -Bangladeshen, Pakistanen, -Egipton eta Marseillan; indiar bat itozteko zorian zegoela heriotzatik libratu zuen; Thailandian motor istri-pua izan zuen...

## Jende zoragarria


Egunero, batez beste, 80 kilometro egin zituen bizikletaz eta lo, berriz, berak zeraman dendan edo aholkatutako leku merkeren batean egiten zuen. la beti laboreak, barazkiak eta fruta jaten zituen. Karlosen hitzetan, herri guztien artetik, Txina eta Laos gustatu zitzaizkion gehien. Ekialdeko jendea zoragarria dela eta hango lurraldeak bidaiarentzat ziurrak direla dio. Arazo gehien, aldiz, lurralde musulmanetan izan zituela adierazi digu.

Honelako abentura batean

sartzeko ero samarra izan behar ote den galdetuta, "nik egin dudana edonork egin dezake. Mota honetako bidaia bat egiteko hiru gauza besterik ez dira behar: gogoa, konstantzia eta bakardadeari beldurrik ez izatea", adierazi digu. Bere ustez, egun osoa etxean telebistari begira igarotzen dutenak, horiek dira eroak.

Karlosek dioenez, hauxe da bidaiatik ikasi duen ikasgaiarik handiena: "Mundu zabalean ez dut hemen ikasi ezin dudana ezer ikasi. Mundua berdintsua da leku guztietan, jendeak borroka berak ditu, leku guztietan dago jende ona eta jende gaiztoa..."

Karlosen abentura hobeto ezagutu nahi dutenek ostiral honetan dute aukera, Larrotxenen, 20.00etan.



euskararen  
donostia  
patronatu



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Antzerkia

- "Kaio Luma zikina"

Maskarada

Gabriel Aresti Poeta da gaia eta Arestiren beraren testuetan oinarrituta dago. Aresti eta bere zirkunstantzia: literatura, euskara, diktaturako egoera... Apirilaren 19 eta 20an, 20.30etan Lugaritz Kultur Etxean

- "Murphy gainetik kendu ezinba" (estreinaldia)

Ander Elizanbok idatzia eta Santiago Sánchez-ek zuzendua Zerbait gaizki joan badaiteke, gaizki joango da. Unore garratza, samurra eta ironikoa nabasten dira antzerki lan honetan.

Apirilaren 25 eta 28an, 20.00etan

Antzoki Zaharrean

## Haur festa

- Olinpiadak, jokoak, tailerrak, jolasak...

Plazara Goaz euskara taldeak antolatuta

Apirilaren 20an, 17.00etatik 19.00etara

Intxaurreondoko Bemat Etxepare plazan eta Ipar Haizea auzo elkartearen aretoan

## Zinea

- Nosferatu

"John Ford gaztea" zikloa 1934 urteko "The lost patrol" (Galdutako patruila).

Euskarazko azpitituluekin. Apirilaren 24an, 20.15etan

Antzoki Zaharrean